

“La Carta a los Pueblos y Naciones del Mundo”



PRIMER BALANCE PUBLICO DE UNA CAMPAÑA POPULAR

boisob

La "Carta a los Pueblos y Naciones del Mundo" que, en tres meses, consiguió 300.000 firmas de adhesión, fue una campaña iniciada a mediados del pasado agosto, tan pronto como se conoció la petición de extradición contra 6 refugiados políticos vascos, que el Gobierno Español había cursado a su homólogo Francés.

Esta "Carta" y la campaña que se montó en torno a ella a fin de darla a conocer en Euskadi primero, pero también en el resto del Estado Español y países extranjeros, pretendía en primer lugar defender el Derecho de Asilo para los Refugiados Políticos Vascos y, más en general, expresar una convicción generalizada de que los problemas que afectan a Euskadi son, de naturaleza política y no de delincuencia común como se quiere hacer entender desde las esferas del Poder.

La movilización que se generó en torno a la "Carta" constituye, sin duda, una de las movilizaciones populares más amplias y unitarias de los últimos años en Euskadi y culminó en una multitudinaria manifestación contra las Extradiciones celebrada en Bilbao el 20-October.

La campaña contó con el apoyo favorable del 65 por ciento de la población de Euskadi Sur; es decir, con la mayoría democrática.

A pesar de todo el Gabinete Fabius del Presidente francés Mitterrand accedió a las pretensiones del Gobierno González de España y entregó a éste 3 refugiados (García Ramirez, Lujanbio y Mtz. Beistegi) y deportó al resto al lejano Togo.

A estas alturas, con otras extradiciones pendientes, se impone una reflexión sobre la propia campaña y sobre la utilidad o eficacia de semejantes movilizaciones populares.

Es lo que hace aquí HERRIA 2000 ELIZA en el último número del año, a través de una encuesta, artículos de opinión y entrevistas. Probablemente cada uno de los grupos participantes tendrá su propia valoración a hacer. En todo caso, éste puede ser un primer balance útil.

HERRIA 2000 ELIZA

1. Has firmado y colaborado con la Coordinadora de la Carta de los Pueblos. ¿por qué?
2. ¿Cuáles han sido las razones por las que la carta y la manifestación han tenido una acogida personal y colectiva tan importante?
3. ¿Cuáles son los logros fundamentales que te gustaría señalar?
4. Aspectos positivos y negativos que descubres en su origen, desarrollo y proyección exterior.
5. ¿Qué valoración harías de la Marcha del día 20?
6. ¿Cómo debería ser la Marcha o Ibilaldia ante un problema común en Euskadi?
7. ¿Tiene sentido una institucionalización de la Coordinadora de Euskadi? ¿por qué?
8. ¿Cuáles serían sus peligros?

Paulo Agirrebaltzategi

Euskal idazlea

Munduko Herri eta Nazioei gutuna.. Estradizioen aurkako Bilboko manifestaldia... Talde koordinatzailearen jarraipena....

Neure eritzia emateko eskatu didate, beste zenbaitekin batera gogoeta egiteko. Galder-sail bat ipini didadte horretarako. Ukatu ezinean, baiezkoa eman ondoren, neure buruari beste aurre-galdera hauek ipini dizkiot: Zertarako egiten da galdeketa hau? Gutunaren inguruan eta estradizioen aurka gertatu den mobilizazioaren arrakasta handia kantatzeko? Barrutik horren akatsen kritika zorrozteko? Esperientzia horratik abiatuz, aurrera nola jokatu aztertzeke?.

Hiru asmoak iruditu aintzakotzat hartzeak eta elkarrekin lotuak. Herri-borrokak behin baino gehiagotan jasaten dituen ezinen aurrean beharrezkoa da horrek lortzen dituen garaipenen gorapena egitea; herri-mugimenduak etengabe eta begi zoliz kritikatu behar ditu bere barruko okerrak eta hutsegiteak; atzera begira gelditu beharrean, aurrerako helburuak eta urratsak argitu eta bideratu behar ditu kemenez herri-indarrak.

GUTUNA: NEGOZIAZIOAREN ETA KONFRONTAZIOAREN GAINETIK

Aspaldiko urteotan herri-mugimenduak ez du udako oporraldi politikorik hartzerik izan. Inoiz biano erneago egon beharra gertatu zaio, beti bait daukate etsaiek eta boteredunek garai horretarako, prestaturik ziriren bat, urtean zehar sartzerik izan ez dutena, udako barreialdian sartzeko.

Aurtengo abuztuan urrutitxo joatea bururatu zitzaidan; mendira, gainera: egunkarietatik eta irratietatik urrundurik, alegia. Etxera hurbildu orduko, ordea, Frantziako estatuak Espainialkoari euskaldun errefuxiatu batzuk entregatu nahi zizkiola eta, Munduko Herri eta Nazioei zuzenduriko gutunaren inguruko berriarekin eta mobilizazioarekin egin nuen topo.

Ez zitzaidan ulertzen zaila gertatzen; horrelako asko sortu eta indartu bait da gure Herrian; baina benetan harrigarria gertatu zitzaidan, nolatan aste gutxitan halako konbergentzia gertatu zen indar sozial eta politiko ezberdinetako artean eta nolatan hainbat talde eta elkarte kultural, sozial eta herri-tuta mobilizatu eta eraturik zeunden, gutuna zabaltzeko eta horren aldeko sinadurak herritan eta auzoetan biltzeko.

Nolabait baharturik gertatu nintzan ahal nuentxo neure inguruan bahintzat mugitzeko. Nahiz eta bakoitza eguneroko eta luzaroko borroketan eta langintzetan murgilduril ibili, ba dira halko uneak eta kinka larriak, indar herritar guztiak bateratu behar direnekoak, momentuko eraso larriari erantzun premiatsua emateko. Horrelakoa zen, hain zuzen, estradizioen arazoa.

Munduko Herri eta Nazioei Gutuna ba zuen halako oihartzun profetiko eta apostoliko bat; zenbaitek kutsua ere hartu zion. AGian horresegatik, beharbada hori eta guzti, indar herritarrek elkargune bat aurkitu zuten, beren ahotsa, haserrea eta eskabidea kaleratzeko, denak el karturik.

Hortxe egon dela uste dut, egon ere gutunaren ekintzaren handitasuna: *erreformismo* eta *rupturismoaren*, *negoziazio* -eta *konfrontazio*- politiken gainetik, mobilizazioaren bidena alde bateko eta besteko indarrak biltzeko. Erresistentziaren eta jarkieraren bidean, indar eta alderdi politikoen gainetik -edo tartean- beste ekintza- eta eragintza-foko bat argiturik zegoen, oinarriko herri-indarrek beraiek piztuta. Jakina da, ordea, horrelako jarkiera-ekintzarako ukibera dela gure herria, historian zehar hainbat aldiz eranzuna eman behar izan duelako.

Zergatik izan duen halko arakasta pertsonala eta soziala ekintza horrek? Batetik, Herri honentzat arazo oso larri eta minbera zegoelako tartean; gainera, egokiera onaz baliatzen jakin zuelako;

hirugarrenik, ekintza herritar zabal eta ireki bezala ipini zelako gutunarena. Ez da hantzi behar, borroka partidista eta alderdikeriekin sarritan asperturik dagoela jendea.

ESTRADIZIOEN ONDOREN: BIDE GALDUTA?

Gutunaren ekintzaren lorpenik nagusiena, seguruenik, lehen aipaturikoa bera da: hainbat herritar (300.000?) horrelako bakezko erresistentzi bidera erakarri izana, nahiz eta sinadura ematea bera ez izan oso arriskutsua eta lotura handikoa. Hainbat herritar, indarrak elkartzearen eta bateratzearen beharraz jaberazi ditu, eta ahaztuxea edo zuen mobilizazioaren eta erresistentziatzeko borrokaren eginkizuna eta oroimena suspertu die. Horren suspergarria, estradizioen arazoa izan da oraingoan. Baina beste hainbat zauri iraunkor eta eraso jasaten ditu Herri honek, jarkierazko ekintzara deitzen dutenak: Euskararen menpekotasuna, errepresio itsua, askatasun eta eskubide politikoen zapalkuntza eta ukapena, tortura, etab...

Izenak eta sinadurak biltzeko kanpainaren organizazioaren alde onak eta akatsak balioztatzeke moduan ez nago, barrutik ezagutu ere egin ez dudalako. Nik baino beste askok hobeto egingo dute barrutik kanpaina osoaren balioztatpena eta kritika.

Kanpotik begiraturik, ordea, zerbait esan eta nabarmendu nahi nuke. Nere ustez, bi aldi edo fase izan zituen kanpainak: Frantziak estradizionak ematea erabaki aurretikoa, eta estradizio horiek eman ondokoa.

Lehen aldian, baikortasuna eta esperantza ziren nagusi: Euskal Herriaren gehiengoaren kontra Frantziak ez zeukan estradizioak ematerik, askoren ustez. Horregatik, gutunaren ekintzaren xendea eta helburua oso argi ikusten ziren, eta benetako berotasunez ekin zitoten lanari kanpainen zihardutenek.

Estradizioak eman izanak, berriz, lurjota eta bidalgalduta utzi zuen hainbat lagun: etsipenez beterik gainera. Une horretan, ez dakit zeinek, agian kanpainaren antolatzaileek ez zuten jakin, nere ustez, ekintzari zentzu berri bat aurkitzen eta jendari azaltzen.

Areago, estradizioen lehen harridura gainditu ondoren, eta hasierako amorruek eta gaitzespen hutsetatik irten ondoren, gutunaren ekintzari ez zitzaion artean helburu argirik eman jendearentzat, nork bere haserrea adieraztekoa eta erantzen minduarena besterik. Beste hitzez esanda, ez zen asmatu, estradizioen "ezbeharra" gainditzearekin batera, gutunaren inguruko mobilizazioari luzarorako helburuak argitan. Ondoko firmen bilketa, agresiboa izan arren, atzera begira egin zela iruditzen zait, bai eta azkeneko manifestaldia ere: gertaturiko estradizioen kontrako protesta gisa, alegia.

Iruditzen zaidanez, egun eta aste batzuetan arrisku bat gertatu zen, berehalako erantzunaren dinamikan erortzekoa, ibilaldi luzearen dinamika eta asmoa itoz. Ez nago noski unean uneko erantzun bizkorren aurka; baina izen-bilketaren koordinatzaileek gauza izan behar zuten, harriduraren eta haserrearen gainetik, eta berehalako mobilizazio bizi eta gogorren gainetik, gutunaren inguruko ekintza luzarorako erresistentzi bide bezala aditzeko eta jendeari adierazteko.

Geroago erreakzio egokia etorri zela uste dut, baina agian berandutxo, eta nolabait momentuko mobilizazio gogorren zurrunbiloak hartuta. Uste dudanez, horren ondorioa izan ziren geroko ekintza guztiak, bai eta Bilboko manifestaldia bera ere.

MANIFESTALDIA: SUA BERRITU

Ez dut, ez, Urriaren 20ko manifestaldiari buruzko eritzi negatiborik emango; erabat alderantziz. Nere ustez bikaina izan zen estradizioen kontrako erantzuna eta protesta. Eta berehala nabarmendu behar dena zera da: 300.000 sinadura zituela manifestaldiak euskarri gisa, agian sekula kaleko manifestaldietara joan ez diren eta joango ez diren sinadurak. Baina horrelako manifestalditara ia sekula joaten ez denik ere ikusi nuen Urriaren 20koan. Dena dela, gutunaren eta manifestaldiaren arteko lotura oso garrantzizkotzat jotzen dut. Hala ere, ondo hartu behar da kontutan, sinatzaileetatik o/o 10 bakarrik joan zirela manifestaldira: datu hori garrantzizkoa da orain eta gerorako.

Bestalde kontuan eduki behar da 3.000.000 inguru euskaldun gara. Eta estradizioak benetan Euskal Herriaren kontrako erasotzat hartzen baditugu,



guzti horientzat ere halaxe zela... Jakina hau dena, oso teoriko eta idealista da, denok bait dakigu gutxi gora behera, nola dagoen zatiturik Herri honetako gizartea. Hala ere, hiru milioi horiek erakartzea eta horiei eragitea eduki behar du helburutzat, eta ez talde borrokalaria baten ekinbidea izatea. Ba dut susmoa, "Ibilaldi nagusia" programtzean eta aurrera eramatean, halako lotsa eta beldurra nagusitu ote ziren (eta ez Gobernadorearena edo poliziarena bakarrik nahiz eta horiek oso tartean eta barruan egon). Manifestaldiari berari helmuga ipintzean goitik ibiltzeko beldurra, adierazi nahi dut; eta horrekin batera prentsako eta komunikabideetako kanpaina zabalgoari eta zorrotzagoari helteko lotsa modukoa.

Guzti hori, ordea, nahiko apaldurik eta ezkutaturik gelditzen da, "Ibilaldiak" berak ukan zuen arrakastaren azpian. Hiru alderdi aipatu nahi nituzke bereziki:

- Manifestatzaileen kopurua bera, aspaldi honetan Euskal Herrian gertatu den handienetakoa edo handiena nonbait.

- Estradizioen kontrako protesta izateaz gain, Gobernadoreak ezarritako oztopo eta "debeku" politiko-legezkoie (sasilegezkoie eta politika zapaltzaile jakin batekoie) aurrea

eman zien manifestaldiak; eta hori, aurretik komunikabide sozial gehienek egindako hutsuneaz eta egun bereanpolizak ipiniriko oztopoez eta probokazioez gain.

- Estatuko eta Europako beste Herrietatik etorritako taldeek eta lagunek esanahi berezia eman zioten manifestaldiari.

Horien kopurua ez zen seguruenik ikaragarria, baina bait oso esanguratsua. Alde batetik, erreforma ondoko urteotan euskal borrokak igaro behar izan duen basamortuaren ondoren, estatu espainoleko beste herrietatik eskaintzen den edonolako elkartasuna benetan eskertzekoa da; horrelaxe adierazi zuten Bilbon katalanei, galiziarrei, andaluziarrei, madrildarrei, gaztelaeuei, eta beste Herrietakoei jo zitzaizken txalo beroek.

Bestalde, PSOeren bi urtetako gobernuaren ondoren, eta orduko esperantzak etxipen bihurturik, estatuko Herri guztietan berrito garai bateko mugimendua suspertzen ari dela esan daiteke. Gogoratzekoa da, orain dela bi urte, hain zuzen, agertu zen liburu bat *El perecimiento del Estado. Nacionalismo de clase.*, Carmen Pino eta Alfonso Arnau-ren eskuetatik. Bertan saiatzan dira autoreak estatuko Herri guztietan

ziharduten indar sozialista eta "abertzaleen" organizazioen berriak eta borroken apurak erakusten; ba zirudien, ordea, azken bi urteotan itota zegoela "klase-nazionalismoaren" mugimendua. Baina Bilboko manifestaldiak seguruenik bestetarako esperantzarik ematen du. Gaurkoa da noski aipaturiko liburua, bere filosofia eta arazoketa orokorretan; suspertzen ari den mugimenduak, berriz, horren hirugarren parte berri horren hirugarren parte berritza eskatuko du.

AURRERABIDEAN: KOORDINAZIOA ETA ORGANIZAZIOA

Besteren artean, galdera harrigarri bat egin zait: Nolako izan beharko lukeen ibilaldi batek, Euskal Herriaren arazo nagusi baten aurrean.

Euskal Herria ohitua eta trebatuta dago ibilaldiak antolatzen eta egiten, bere askatasun-borrokako bidean: "Askatunaren ibilaldi" handi hartatik hasita, hain zuzen. Gerora beste hainbat: Eusak Herrian zehar egin zen Lemoizen aurkakoa eta Lemoizera bertara beste behin egindakoa; euskararen aldeko ibilaldiak: Korrika, Kilometroak, Araba euskaraz, Bizkaiko ibilaldia, Nafarroa oinez, Iparraldeko Herri Urrats... Yeu-ko irlara, Herrera de la Mancha-ra, Puerto de Santa Maria-ra eta beste horrelako lekutara hainbat aldiz egin diren ibilaldiak ... Autobusez, bizikletaz, oinez: ibili dabil ia etengabe Herri hau, bere askatasuna eta nortasuna lortu arte.

Azkenik, Bilboko "Ibilaldi nagusia" ... Beste ibilaldirik asmatu behar al da oraindik? Agian bai. Baina aurrenik eta beti abiaburu hauxe eduki behar ondo finkaturik: Euskal jarkera herritarraren ibilaldia bakarra dela, eta luzea dela, "La gran marcha"... Horren barruan jogan behar dute helmuga jakin eta espezifikoa duten halako ibilaldi guztiek; ibilaldi luzearen helburua eta horrek eskatzen duen eroapena beti eduki behar dira gure herritarren artean, kanpotik datozkien ersoei eusteko eta askapenaren bidea ebakiz joateko.

Bide luze hori egiteko oraindik hainbat ibilaldi asmatu eta antolatu beharko dira, bai irudimenari leku hadia utzi behar zaio hor. Baina hasteko, esan daiteke, herri edo hiri jakin batean egiten diren momentuko -bizpahiru ordutako- ibilaldi-manifestaldiek baino eragin handiagoa dutela mobilizazio zabalek eta iraunkorrek, Euskal Herriko bazter guztietara hedatzen direnek; horienbidez eskubide zapal-

duei eta ukatuei buruzko jaberazpena zabaltzen da, eta ahal den herritar gehienei parte harrerazten zaie mobilizazioan.

Aipaturiko irudimenarekin batera, organizazioa eta koordinazio iraunkorrak nabarmendu behar dira. Gure Herrian arriskua daukagu, kolpeka eta eraso konkretuei erantzutekoa. Baina "Ibilaldi nagusia" "Ibilaldi luzea" bihurtu da; Bilbokoarekin hasi edo berri besterik ez da egin Ibilaldi luzea. Hori egiteko iraunkorrak eta bizkorak izan behar dute organizazioak eta koordinazioak. Aurtengo sinadurena dela eta, eratu diren hainbat talderi ekintza iraunkorretarako bidea eskaini behar zaie.

Bestalde, hainbat dira gure Herrian diharduten "Koordinadorak": Amnistia- ren aldekoak, euskararen defentsarakoak, preso arrunten aldekoak, zentral nuklearren aurkakoa, etab. etab. Uda honetan beste bat sortu da, estradizioen aurkakoa. Eta ondo dago; eskubide ezberdinak defenditzeko eta borroka diferentek borrokatzeko koordinadora "sektorialak" beharrezkoak eta egokiak dira seguruenik. Bestalde, sortzen diren talde koordinatzaile berri eta dinamikoek sarritan herri-mugimendu osoa eta beste koordinadorak indarberritzeko ere balio dute.

Baina uxatu behar dena zera da: jarkiera herritarraren bidean eta mugimenduan sektarismoak eta taldekeriak sortzea. Talde koordinatzaile "sektorialen" koordinazioa da beharrezkoa, inolako konkurrentzian eta leihakerian ez eror-

tzeko. Gainera, herri-mugimendua alderdi gehiegitan zatitzeari ere ihesegin behar zaio. Hitz batez, Gutunaren Talde koordinatzaileak aurrera jarraitu behar duela uste dut, aipaturiko oharrak kontutan edukiz.

BERTSO BATETARAKO PUNTUAK

Bilboko Ibilaldi nagusia hunkigarria izan zen, eta aspaldi honetan Euskal Herrian egin den handienetakoa; inoiz ez da egin orain arte estradizioen kontrako gutunaren sinadura-bilketa adikorik Euskal Herrian, guk dakigunez behintzat. Euskal Herriaren (hiru milioi herritar horien) askapenaren bidea ebakitzeko herri-jarkieraren dinamika suspertzen ari da berriro eta koordinazioa zabala eratzten.

Jarkiera herritarra bizkortzearekin, antolatzearekin eta bultzatzearekin batera, kantatu egin behar da, ordea, Euskal jarkieraren kantaririk bikainenak bertsolariak dira. Herri honen askapen-esperantza eta jarkierazko borroka kantatu nahi duen bertsolari, gai bat eta hiru puntu ipini nahi dizkiot:

30.000 lagun
300.000 gutun
3.000.000 euskaldun

Laugarrena bertsolariari berari utzi-ko diot aukeran.

Paulo Agirrebaltzategi

Euskaldun hori, Zure laguntza behar dugu.

**DIRUA - IDEIAK - ARTIKULOAK
LANAK ...**